

Desgaitasun intelektuala duten hogeita hamar adingabe eta gazte inguru astebeteko jarduera egokituak izaten ari dira Barriako aterpetxean

Emilio Sola foru diputatuak udalekua bisitatu du, zeinak gazte horientzat bereziki diseinatutako aisialdiko jarduerak eskaintzen baititu

Gasteiz, 2021eko abuztuaren 4a. Desgaitasun intelektuala eta laguntza premia handia duten hogeita hamar haur eta gazte inguru astebeteko egonaldia egiten ari dira egun hauetan Barriako foru aterpetxean. Aisialdiko programa bat da gazte horientzat “*bereziki diseinatua*”, “*halako moldez non aisialdi eta bizikidetzaren egun batzuek gozatu ahalko baitute, ingurune segurua batean eta jarduera inklusiboak eginez, eta horri esker haien autonomia pertsonala eta gizarte harremanak ere sustatuko dira, gizarteratzeko modu gisa*”.

Hala azaldu du Emilio Sola Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak, zeinak gaur goizean udaleku honetan egiten diren jardueretako batzuen berri izan baitu, Iñaki Artaza Gizarte Politiken Saileko Berrikuntzaren, Kudeaketa Sistemen eta Ebaluazioaren zuzendariarekin eta Ana Rosa López de Uralde Kirol eta Gazteriaren zuzendariarekin batera egindako bisita batean.

Bosgarren urtez, etenik gabe, erabiltzaileek eta haien familiarek asko eskatzen duten jarduera bat jarri da abian. Izan ere, neska-mutilen aisialdirako jarduerak eskaintzeaz gain, programa horrek “*urtean zehar haiei arreta ematen dieten familiarek astebeteko atsedena ere izan dezaten laguntzen du, senitartekoaren egonaldia haren premiekin eta behar dituen laguntzekin bat datorrela ziurtatuta*.”

Aurten ere, jarduera gauzatzeko Gazteriaren Foru Erakundeak lagatzen duen Barriako foru aterpetxean egingo da. Iaz, COVID-19aren pandemiak egonaldiak egokitzea behartu zuen, baina aurten, ahal den neurrian, koronabirusa agertu aurreko dinamika berreskuratu da. Jarduera guztiak koronabirusaren transmisioa saihesteko prebentzio protokolo eta neurriekin egingo dira.

Aisialdi programa txandaka banatzen da: aste honetan 7 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeentzat da, eta datorren astean 19 eta 30 urte bitarteko gazteentzat.

Programa hau garatzean, harreman pertsonalak hedatzen dituzten eta gaitasunak, autonomia eta autodeterminazioa sustatzen dituzten jarduerak egin ahalko dituzte, pertsona bakoitzaren beharrezan ardatz hartuta.

Astean zehar, lantegi, aquagym, igerileku, dantza, paseo eta gau jaietako hainbat jarduera antolatuta dituzte. Jarduera gehigarri gisa, txakur terapia, behitegi bat bisitatzea edo errugbia egiten da. Gaur, Zeledonon jaitsiera ekitaldia antolatu da Barrian, formatu txikian, non erabiltzaileek parte hartu ahal izan baitute, eta pandemiaren egoerak datorren urtean Andra Maria Zuriaren plazan ospatzeko aukera emateko zain geratu dira.

Monitore espezializatuek osatzen dute arreta taldea, eta parte hartzaileei haiak behar duten arloetan laguntzeko eginkizuna dute, programaren jardueretan albait gehien parte hartuko dutela bermatzeko. Laguntza oso handia behar dutenez, monitore bat dago programaren erabiltzaile bakoitzeko.